

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2607

AGINDUA, 2020ko ekainaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2020rako deialdia egiten da.

Bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, ezagutzaren edozein eremutan bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako ikaskuntza-ekintzak egin daitezen sustatzeko laguntzak arautu dira.

Era berean, Bizialdi Osoko Ikaskuntzaren urriaren 10eko 1/2013 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako xedekak betetzen lagunduko dute agindu honetako laguntzek.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean izango dituen aurrekontu orokorrak zehaztuta daudenean, programei dirulaguntzak eman edo ez erabakitzeke arauak eguneratu, berrikusi edo, hala behar badu, ezarri egin beharko dira. Zehaztugabeko indarraldia eman zitzaien dirulaguntzen kasuan, dagokien deialdia egin beharko da, halaxe xedatu baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

Kontuan izanik diruz lagun daitezkeen jardueretatik indarraldi zehaztugabea nahiz aldi baterako indarraldia izango dutenak arautu direla uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, eta dekretu horretako 10.2 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, hots, publikotasun-printzipioa betetze aldera, egoki den deialdia egingo du Hezkuntza Sailak. Hortaz, agindu hau eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharra dago.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Agindu honen xedea da bizialdi osoko ikaskuntzari lotutako jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzak iragartzea 2020rako.

2. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Diruz laguntzekoak diren jarduerak hasi beharko dira eskabidea aurkeztu den egutegiko urtean, eta garatu ahal izango dira hurrengo ekitaldiko uztailaren 31ra arte.

3. artikulua.– Tramitazio elektronikoa.

1.– Erakunde eskatzaileek behar bezala beteta aurkeztu beharko dute eskabide-orria (l. eranskina).

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, aipatutako egoitza elektronikoan sartuta.

Eskabidearekin, justifikazioarekin eta deialdiarekin zerikusia duten gainerako izapideak egiteko jarraibideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri, honako helbide honetan:

https://www.euskadi.eus/dirur_laguntza/2020/bozi/y22-izapide/eu

Deialdiko laguntzak emateko, justifikatzeko eta administrazio-bidean aurkaratzeko prozeduraren izapide guztiak modu elektronikoan egin eta jakinaraziko dira, lehen aipatutako egoitza elektronikoa-ren bidez.

2.– Eskabidearen ondoko izapideak Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren «Nire Karpeta» atalean egingo dira.

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera eta berorri atxikitako dokumentazioa. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabili ahal izango da prozedura osoan, euskararen erabilpena arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

Eskabideak aurkezteak adierazten du deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla.

4. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

118/2019 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutako irizpideak betez ebaluatuko dira eskaerak, II., III. eta IV. eranskinetako eskemak oinarri hartuta.

5. artikulua.– Finantzazioa.

1.– 930.000,00 euro erabiliko dira deialdi hau finantzatzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

2.– Hona jarduera-mota bakoitzaren zenbateko erabilgarri maximoa:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: 175.000,00 euro.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 595.000,00 euro.

c) Esperimentazio-proiektuak: 160.000,00 euro.

6. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Deialdi honen funtsen kargura honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira: proiektuan zuzenean parte hartzen duten eta diruz lagundutako jarduera garatzeko ezinbestekoak diren langileen gastuak; eta diruz lagundutako jarduera garatzearen ondorioz zuzenean sortutako funtzionamendu-gastuak.

Finantza daitezkeen gastu guztien % 10 izan daitezke, gehienez ere, funtzionamendu arrunteko gastuak; besteak beste: proiektuaren zuzendaritza-, koordinazio-, kudeaketa- eta administrazio-gastuak; komunikazio-gastuak; ura; argia; eta lokalen alokairua edo amortizazioa.

7. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen jarduera-mota bakoitza finantzatzeko gehieneko zenbatekoa:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: plaza eta prestakuntza-ordu bakoitzeko 7 euro gehienez; 18.000,00 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: gehienez ere 35.000,00 euro, 12 hileko zerbitzuko eta bitartekaritza-zerbitzuari egozten zaion eta lanaldi osoz arituko den bitartekari bakoitzeko. Bitartekaritza-zerbitzua gutxienez 100.000 biztanleko udalerrri batean edo gutxienez 60.000 biztanleko eskualde batean ematen bada, lanaldi osoz arituko den bitartekari bat egotziko da. Bitartekaritza-zerbitzua 12 hileko epean baino denbora gutxiagotan egiten bada, gehieneko zenbatekoa hainbanatuko da.

c) Esperimentazio-proiektuak: 20.000,00 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

8. artikulua.– Diruaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.

118/2019 Dekretuaren 18.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreikusitako jarduerak egiteko emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira.

Lehenengo ordainketa, erakunde onuradunak dirulaguntza onartzen duenean, emandako dirulaguntzaren guztizkoaren % 45.

Bigarren ordainketa, gainerako % 55a, 118/2019 Dekretuaren 18.1.b) artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren. Dokumentazio hori aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, ebazpenean jasotako ekintza guztiak amaitzen direnetik hasita.

Konturako ordainketa bat egin ahal izango da, bigarren ordainketaren % 50ekoa, 118/2019 Dekretuaren 18.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

9. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Deitutako laguntzen prozeduran eta kudeaketan aurkeztutako eskaeretan eta dokumentazioan agertzen diren datu pertsonalak ebazpen honen arloan eskumena duen Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzak, arduradun gisa, tratatuko ditu. Datu pertsonalen aipatutako tratamenduaren xedea izango da deialdi hau kudeatzea eta ebaztea. Xede hori horien interes publikoan eta horietan parte-hartzeko eskaeran oinarrituta dago.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta transferitzeko eskubideak, horiek mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak, eta datuen tratamendu automatizatuan baino oinarritzen ez diren erabakien aurka egiteko eskubidea erabiltzeko, hala dagokionean, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzara jo beharko da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari. Hilabeteko epea izango da horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; halaxe xedatu baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Bestela ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Bi hilabeteko epea izango da horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; halaxe xedatu baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 23a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA

BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI LOTUTAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAK
INSTRUKZIO-ORGANORA BIDERATUTA:
TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua* _____ Zenbakia* _____

Erakundearen izena* _____

Ordezkaria

Identifikazio-dokumentua * _____ Zenbakia * _____

Izena * _____

Lehen abizena _____ Bigarren abizena _____

Sexua:

☐ Gizonezkoa

☐ Emakumezkoa

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia *

Jakinarazpen eta komunikazio kanala *

☐ Elektronikoa:

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa: _____

SMS: _____

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza *

☐ Euskara

☐ Gaztelania

Erantzukizunpeko adierazpenak

Honako hau adierazten dut erakunde eskatzaileari buruz:

Ez dauka dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzea eragozten dion zigor penal edo administratiborik.

Ez dago dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasunik gabe uzten duten lege-debekuen eraginpean, beren-beregi sexu-diskriminazioagatik lege-debekuen eraginpean.

Bete egiten ditu Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean (azaroaren 11koa 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina) eta, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako betekizunak, hau da, dirulaguntzak jasotzeko indarrean dauden araudian ezarritako betekizunak.

Egunean ditu indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak, eta ordainduta dauzka Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzen alorreko itzulketa-obligazioak.

Helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatuz gero eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

Erakunde eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela dirulaguntza jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak. Entitateak hori egiaztatzen duen dokumentazioa dauka eta eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko du dokumentazio hori.

Halaber, erakundeak konpromisoa hartzen du aurreko betebeharrak aipatutako aitorten horri dagokion aldi osoan betetzeko.

Konpromisoa hartzen du, erabakian kontuan hartutako baldintzetako eragiten dien edozein zirkunstantzia aldatuz gero, aldaketa hori jakinarazteko.

Aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu-mota	Izena

Lehenago aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu-mota	Izena	Dokumentua hartu zuen organoa	Noiz aurkeztu zen

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzekoak

Araudi aplikagarriarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko (GSDN) betebeharrak egunean izatearen datuak.
- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia).

□ EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. artikulua).

Oharra: onarpenik eman ezean, prozeduran eskatutako agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

Sinadura elektronikoa

II. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

a) Honako hauen zehaztasun-maila: prestakuntza-jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldeen ezaugarriena; talde horren kuantifikazioarena eta ase nahi diren prestakuntza-beharrizanena; bete nahi diren helburuena – onuradunek konpetentziak eskuratzeari, haien kualifikazioa hobetzeari eta haien prestakuntza-ibilbidean aurrera egiten jarraitzeari dagokionez– eta xedeen lorpena ebaluatzea ahalbidetzen duten adierazleena (25 puntu gehienez).

- ☐ Jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldearen edo hartzaileen ezaugarriak eta kuantifikazioa (datuak sexuaren arabera bereizita ageriko dira) (5 puntu gehienez).
- ☐ Bigarren Hezkuntzako ikasketa-titulua ez duten 30 urtetik gorako pertsonen edo 55 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago prestakuntza-jarduera (3 puntu).
- ☐ Jarduera zuzentzen zaien pertsonen zerrenda aurkeztu da (2 puntu).
- ☐ Hartzaileen prestakuntza-beharrak, jardueraren bidez estali nahi direnak (10 puntu gehienez).
- ☐ Hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko eta norberaren lanbide-kualifikazioa eguneratzeko beharrezkoak diren oinarritzko konpetentzietako gabeziak estali nahi dira: oinarritzko konpetentzia instrumentalak, konpetentzia digitalak, konpetentzia pertsonal eta sozialak, eta ikasten ikastea (10 puntu).
- ☐ Estali nahi diren prestakuntza-beharrek honako hauekin lotura dute: autonomia pertsonala hobetzeko gaitasunarekin (oinarritzko konpetentzia instrumentalak, konpetentzia digitalak, konpetentzia pertsonal eta sozialak); gizarte parte-hartzea eta borondatezko lana sustatzearekin 55 urte baino gehiagoko pertsonen artean, bai eta pertsona horiek gertuko beste herri-proiektu batzuetan parte hartzea bultzatzearekin ere (10 puntu).
- ☐ Konpetentziak lantzearen eta kualifikazioak hobetzearen alorreko helburuak (10 puntu gehienez).
- ☐ Proiektuaren helburuek lotura dute lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko hobekuntza-prozesuetan parte hartzeko oinarritzko konpetentziak lortzearekin (30 urtetik gorako pertsonak) edo autonomia pertsonala eta gizarte parte-hartzea hobetzeko trebakuntzarekin (55 urtetik gorakoak); eta gaitasunetan zer aurrerakuntza espero diren zehaztu da (5 puntu).
- ☐ Hartzaileen kualifikazioarekin eta prestakuntza-beharrekin bat datoz helburuak (2 puntu).
- ☐ Helburuen betetze-mailaren ebaluazioa aurreikusi da, eta ebaluazio-tresnak zehaztu dira (3 puntu).
- ☐ **GUZTIZKO PARTZIALA**

b) Erakunde eskatzailearen gaitasun teknikoa helduen prestakuntzaren alorrean, bereziki kualifikazio txikiko helduen prestakuntzan eta bere gaitasuna prestakuntza-jarduerak, euskaraz nahiz gaztelaniaz, garatu ahal izateko. Gaitasun teknikoa oinarrituko da garatu nahi den jarduera aurrera eramateko erabilitako baliabide materialen kalitatean eta esperientzian zein prestakuntzan, bai eta jarduera garatzeko erabiliko diren giza baliabideetan ere (25 puntu gehienez).

☐ Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesionalak a) ataleko ezaugarriak betetzen dituzten eta 50 ordu baino gehiagoko iraupena izan duten ikastaroak eman dizkiete pertsona helduei azken 3 urteotan (0,20 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, 10 puntura heldu arte; edo, kualifikazio baxuko 30 urtetik gorako pertsonen kasuan, 0,50 puntu emango dira ikastaro bakoitzeko, 10 puntura heldu arte, frogagiriak aurkeztu behar dira).

☐ Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesionalak euskararen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila egiaztatzen badute edo baliokideak diren mailak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera (1 puntu emango dira profesional bakoitzeko, 4 puntura heldu arte, frogagiriak aurkezten badira).

☐ Proposatutako jarduera emango duen edo duten profesionalak jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusi zuzena duen eta gutxienez 20 orduko iraupena izan duten ikastaro bakoitzeko (0,20 puntutik 3 puntura, gehienez, frogagiriak aurkeztu behar dira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 3 puntu emango zaizkie.

☐ Baliabide materialak egokiak eta nahikoak dira jarduera garatzeko (5 puntu).

☐ Ikasmateriala, publizitatean eta ekintza osoan erabilitako materiala hizkuntza ez-sexista erabiliz idatzita daude eta irudiek eta testuak genero-rolen haustura bultzatzen dute (3 puntu. Frogagiriak aurkeztu behar dira).

☐ GUZTIZKO PARTZIALA

c) Garatuko den prestakuntza-jardueraren zehaztapena: edukiak, metodologia, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak, irauten duen ordu-kopurua eta aurreikusitako programazioa. Proposatutako adierazleen koherentzia eta balioa aurreko a) atalean esandako helburu eta prestakuntza beharrekin alderatuta (25 puntu gehienez).

☐ Edukiak (8 puntu)

☐ Edukiek lotura dute, zuzen-zuzenean, 55 urte baino gehiagoko pertsonen autonomia pertsonala eta gizarte parte-hartzea hobetzeko gaikuntzarekin; balioespen-irizpide hauetako a) ataleko zehaztapenekin; edo lanbide-kualifikazioa eguneratzeko eta hobetzeko prozesuetan sartzeko beharrezkoak diren oinarritzko gaitasunak lortzearekin (8 puntu).

☐ Metodologia (4 puntu)

☐ Proiektua zehatza da, haren arrazoiak eman dira, eta bat dator jardueraren edukiekin, xedeekin eta hartzaileekin (4 puntu).

☐ Ikaskuntza-emaitzak eta ebaluazio-irizpideak (9 puntu gehienez).

☐ Ikaskuntza-emaitzak zehatzak dira, edukiekin bat datoz, eta zehatzu da zer aurrerakuntza espero den hartzaileen kompetentzia-mailan (5 puntu)

☐ Espero diren ikaskuntza-emaitzak lortu direla baieztatzeko balio dute ebaluazio-irizpideek (4 puntu).

☐ Proiektua garatzeko egutegi zehatza, iraupen-orduak eta aurreikusitako programazioa (4 puntu).

☐ Zehatza da, eta bat dator edukiekin nahiz helburuekin (4 puntu).

☐ GUZTIZKO PARTZIALA

☐ GUZTIZKOA (75 PUNTU GEHIENEZ)

III. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- a) **Erakunde eskatzaileak duen gaitasun teknikoa ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak edo prestakuntzarako orientabide zerbitzuak emateko eta zerbitzua euskaraz zein gaztelaniaz garatzeko gaitasuna (25 puntu gehienez).**

Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren eskura jarritako pertsonen bizi aldi osoko prestakuntzarako informazioaren eta aholkularitzaren alorrean egiazta dezaketen eskarmentuan oinarrituko da gaitasun teknikoa.

Eskatutako bitartekaritza zerbitzuan erakundeak jarriko dituen bitartekariak egiaztatuta, ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren edo prestakuntzarako informazioaren eta aholkularitzaren eremuan duten genero-kutsurik gabeko eskarmentua (eskarmentuzko bigarren urtetik aurrera) (10 puntu, gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira).

- Eskarmentu gehigarritzko urte bakoitza: puntu bat urte bakoitzeko (5 puntu, gehienez).
- Bitartekaritza-zerbitzua garatu nahi den leku berean, eskarmentu gehigarritzko urte bakoitza: puntu bat urte bakoitzeko (5 puntu, gehienez).

Puntuazio hau hainbanatu egingo da zerbitzua emango duten bitartekari-kopuruaren arabera, hala badagokio.

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzurako egongo diren bitartekariak(ek) euskararen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila egiaztatzen badu(te) edo baliokideak diren mailak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera (5 puntu emango dira, frogagiriak aurkezten badira).

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuaren esanetara dauden erakundeko bitartekariak jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusi zuzena duen eta gutxienez 20 orduko iraupena izan duten ikastaro bakoitzeko (puntu bat kurtso bakoitzeko, 5 puntu gehienez, frogagiriak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 3 puntu emango zaizkie.

Puntuazio hau hainbanatu egingo da zerbitzua emango duten bitartekari-kopuruaren arabera, hala badagokio.

Proiektuaren garapenerako jarriko diren baliabide teknikoen deskribapen zehatza (gelak, ekipamenduak, softwarea ...) eta tresnena (hizkuntza ez sexistan idatzitako testuak, rol-hausturari laguntzen dioten irudiak,) (5 puntu, frogagiriak aurkezten badira).

GUZTIZKO PARTZIALA

- b) **Bere eremurako jarduketa-plan bat planifikatu eta garatzea, bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko, lortu nahi diren helburuak argi ezarriz eta haien lorpenaren ebaluazioa egitea ahalbidetzen duten adierazleekin (gehienez 20 puntu)**

Eremurako jarduera-plan bat planifikatzen eta garatzen du, hiritar guztiek prestakuntza eskuragarri izan dezaten. Jarduera-planaren deskribapen zehatza aurkezten da, lortu nahi diren helburuak ere bai, eta baita helburu horien lorpenaren ebaluazio prozedura ere (7 puntu)

Erakundeekin, prestakuntza emaileekin eta eremuko bestelako eragileekin lan proaktiboa egitea. Garatu nahi den lan proaktiboaren deskribapen zehatza, eta baita ere lortu nahi diren helburuak eta horien lorpenaren ebaluazio prozedura (7 puntu)

Etengabeko ikaskuntza jarduera zehatzak sustatu, diseinatu eta garatuko dira. Gauzatuko diren jardueren, bete nahi diren helburuen, eta helburuen betetze-maila ebaluatzeko prozedurari buruzko azalpen zehatzak eman dira (6 puntu).

GUZTIZKO PARTZIALA

c) Aurrera eraman nahi den bitartekaritza-zerbitzuaren edukiaren zehaztapen maila: zenbat pertsonari eman nahi dioten arreta; pertsona horien tipologia; arreta eman zaien pertsonen prestakuntzaren bilakaeraren jarraipena eta sustapena (gehienez 30 puntu).

☐ Zenbat pertsonari (sexuaren arabera bereizita) emango zaien informazioa, aholkuak eta haien prestakuntza-ibilbidea bultzatu (4 puntu gehienez).

☐ ≥ 1.000 pertsona (4 puntu)

☐ $500 \leq \text{pertsona} < 1.000$ (2 puntu)

☐ $300 \leq \text{pertsona} < 500$ (1 puntu)

☐ Zerbitzua emango zaien pertsonen tipologia eta tipologia honen justifikazioa (emakumezkoak eta gizonezkoak) (4 puntu gehienez)

☐ Zerbitzua emango zaien biztanleen $\geq \% 60$ k kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (4 puntu)

☐ Zerbitzua emango zaien biztanleen $\% 40 \leq x < \% 60$ kualifikazio baxua edo prestakuntza-maila baxua dute (2 puntu).

☐ Pertsona bakoitzaren prestakuntza-ibilbidearen jarraipena egin eta bultzatzea (10 puntu gehienez).

☐ Pertsona bakoitzari, gizartean esleitutako genero-rolak kontuan hartuta, aholkua emateko prozesua banakakoa eta xehatua da: banakako helburuak zehaztuko dira, eta laguntza banaka eman eta haien jarraipena ere banaka egingo da (7 puntu).

☐ Emandako banakako zerbitzuaren ebaluazioa egingo da: ebaluazio-tresnak zehaztu dira (3 puntu).

☐ Bitartekaritza-zerbitzuko helburuak eta lan-metodologia zehaztu dira (12 puntu gehienez).

☐ Bitartekaritza-zerbitzuaren helburuak zehatzak dira eta bete, neurtu nahiz ebaluatu daitezke (4 puntu).

☐ Helburuen betetze-maila ebaluatzeko adierazle zehatzak eman dira (4 puntu).

☐ Aurreikusitako metodologia bat dator zerbitzuaren helburuekin eta zerbitzua hartuko duten herritarren tipologiarekin. Horretaz gainera, metodologia horren azalpen xehatua eman da (3 puntu).

☐ Proiektua garatzeko egutegi zehatza (puntu 1)

☐ **GUZTIZKO PARTZIALA**

☐ **GUZTIZKOA (75 PUNTU GEHIENEZ)**

IV. ERANSKINA

PROIEKTU-MOTA: ESPERIMENTAZIO-PROIEKTUAK

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- a) *Proiektuaren zehaztasun maila, honako hauek modu zehatzean adierazita: aurrera eraman nahi den esperimentazio-plana; lortu nahi diren helburuak; ebaluatzeko adierazleak; egutegia; metodologia; zer kolektiborengan izango duen eragina, kolektibo horrek edo horiek zenbat eta nolakoak diren; eraginpeko pertsonak, ustez, zer onura jasoko dituzten; proposatutako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea; eta erakunde eskatzaileak proiektua ulertzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozer informazio (45 puntu gehienez).*

Gai hauetako bati buruzkoa da esperimentazio-plana (30 puntu):

- Bereziki kualifikazio txikiko pertsonen zuzendutako eduki irekiko ikaskuntza-gaiak lantzea,
- Prestakuntza-ikaskuntzako metodologia berriak,
- Ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia,
- Prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak kentzea.

Helburuak zehaztasun handiz deskribatu dira; eta neurtu nahiz ebaluatu daitezke (3 puntu).

Helburuekin bat datozen ezarritako ebaluazio-adierazleak (2 puntu).

Proiektua garatzeko egutegia zehatza da (2 puntu).

Zehaztasun handiz deskribatu da metodologia; eta haren arrazoiak azaldu dira (2 puntu).

Proiektua zuzendutako taldearen azalpen zehatza eman da: pertsona-kopurua eta tipologia (2 puntu).

Proiektuak, emakumezko eta gizonezko artean egon daitezkeen diferentziak adieraziz, taldeari ekarriko dizkion onurak zehaztasun handiz deskribatu dira eta egiaztagarriak dira (2 puntu).

Helburuen betetze-maila neurtzeko prozeduraren eta tresnen deskribapen zehatza eman da (2 puntu).

GUZTIZKO PARTZIALA

- b) *Erakunde eskatzaileak proiektua aurrera eramateko dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, proiektuaren egileek eta hura aurrera eramango dutenek zer kualifikazio eta esperientzia duten adieraziz (30 puntu gehienez).*

Proiektua zuzenean garatuko duten pertsonen parte hartu izana irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiei buruzko, irakaskuntza sustatzeko metodologiei buruzko, eta prestakuntza-metodologiei buruzko esperimentazio- edo ikerketa-proiektuetan (puntu 1 proiektu bakoitzeko; 8 puntu gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira).

Lehentasunezko lau gaietako batekin lotura handia duen arloetako batean goi-mailako titulazioa dute proiektua zuzenean garatuko duten langileak (2 puntu langile bakoitzeko; 8 puntu, gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira).

Eskatutako proiektuarekin lotura zuzena duen profesional bakoitzeko, euskararen Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila egiaztatzen badu(te) edo baliokideak diren mailak euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duen uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera (1 puntu emango da, 3 puntu arte gehienez, frogagiriak aurkezten badira).

Proiektua garatzera zuzenean dedikatzen den profesional bakoitzak jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusi zuzena duen eta gutxienez 20 orduko iraupena izan duten ikastaro bakoitzeko (1 puntutik 3 puntura, gehienez; frogagiriak aurkeztu behar dira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroei 3 puntu emango zaizkie.

Proiektua garatzeko erabilgarri jarriko diren baliabide teknikoaren deskribapen zehatza (esparruak, ekipamenduak, softwarea, eta abar) baliabideok egokiak diren ebaluatze aldera (8 puntu, gehienez).

GUZTIZKO PARTZIALA

GUZTIZKOA (75 PUNTU GEHIENEZ)